

## BERTSOLARI: XALBADOR SEMEA, 1980'ko TXAPELDUN

Nik kantata deitu nahi duket  
errespetu haundiena  
zutaz hitz egiten hastekotan  
Manuel de Irujo jauna,  
Euskal Herrian bizi dagola  
gaur zure oroitzapena  
sekula nehork ahantzi gabe  
guretzat zuk egin lana.

Nola gu, zirik eskertu gabe,  
Ai! Zure herri Lizarra  
munduari eman zioztala  
zure horrelako izarra.  
Begira, ez da alperrik izan  
zuk egin dezun indarra  
inoiz baino ederrago da gaur  
hain maite zendun Nafarra.

Zeruko Jaun Haundi hura segur  
denok gure epailari,  
zu epaituta emango zizun  
zerbait zure lanen sari.  
Sari hortatik galdatu nahiko  
nauzuke Emanuel nik zuri  
gaur gozatzen dezun baketikan  
igorri zaukuzu guri.